

Erref.- FMR / Legelari aholkularia

Proposamena: Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzako Giza Baliabideen Zuzendariordetza

**GAIA.- ERABAKI-PROPOSAMENA, 2022KO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZARI DAGOZKION HAUTAKETA-PROBEN DEIALDIAK (OPOSIZIO-LEHIAKETA) ONARTZEKO, ENPLEGU PUBLIKOA EGONKORTZEKO PROZESUAREN BIDEZ, ENPLEGU PUBLIKOAN BEHIN-BEHINEKOTASUNA MURRIZTEKO PREMIAZKO NEURRIEI BURUZKO ABENDUAREN 28KO 20/2021 LEGEAN AURREIKUSITAKOAREN BABESEAN.**

**EGITATEAK-** 2022ko maiatzaren 20an, Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak erabaki zuen Foru Erakundearen 2022rako Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzea, egonkortze-plazei zegokiena, ezohiko eta salbuespenezko izaerarekin, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritakoaren arabera. Eskaintza hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2022ko maiatzaren 30ean.

Deialdi horiek GUFEn ordezkaturako sindikatuekin negoziatu dira, Negoziazio-mahaiaren 2022ko 7., 8., 9., 10., 12., 13., 17., 18. eta 19. aktetan.

**KONTUAK HARTZEKOAK-** Maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 5. artikuluko 6. apartatuan ezarritakoaren arabera, GUFeko Gobernu Batzordearen eskumena da langileak hautatzeko oinarriak onartzea.

Ondorioz, sinatzen duenak Gobernu Batzordeari aurkezten dio honako

#### ERABAKI-PROPOSAMENA

«**Lehenengoa.**» Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Enplegu Publikoaren Eskaintzarekin bat etorritik (2022ko maiatzaren 20ko Erabakiaren bidez onartua), Enplegu publikoa egonkortzeko prozesuaren bidezko hautaketa-probetarako deialdia xedatzea, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritakoaren arabera, dagozkion Eranskinetan agertzen diren lanpostuak betetzeko, lehiaketa-oposizioaren prozedurari dagozkionak.

**Bigarrena.**» Deialdi horiek arautuko dituzten oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzea. Oinarriok, jasota gera daitezen, eranskin gisa gehitu zaizkio erabaki honi.

**Hirugarrena.**» Oinarriak osorik Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela xedatzea; eta laburtuta, Estatuko Aldizkari Ofizialean, iragarki-taulan eta GUFEn web-orrian.

**Laugarrena.**» GUFeko gerente jn. gaitzea, deialdi hau izapidetzeko behar diren ebazpen guztiak har ditzan.

Bilbon, 2022ko abenduaren 15ean

ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARIA

Sin.: Eneko Gutiérrez Coterón

GERENTEA

Sin.: David Latxaga Ugartemendia